




jakintza ikastola




jakintza**ikastola**



Jakintza Ikastolako jangelako araudia

Jantokian, ikasle bakoitzak bere leku finkoa izango du, aldaketak begirale eta arduradunaren pean geldituko direlarik.



+

ikasleak

bazkal aurreko garaia

1. Jangelan sartu baino lehen, jankide guztiak komunera joango dira beraien beharrak egin eta eskuak garbitzera.
2. Gelatik zuzenean eta patiora joan gabe, jangelara ordenean eta lasai sartuko dira, bakoitzari dagokion ordutegia errespetatuz:

LEHEN HEZKUNTZA – 12:30ean


DBH- 12:40ean

BATXILERGOA – 12:10ean

3. Bakoitza bere ohiko tokian eseri denean, janaria ekartzeko pazientzia eta lasaitasunarekin itxaron behar da, beharrezkoa ez den zaratarik egin gabe.

bazkari garaia

1. Jankideek menuko **plater guztiak PROBATU (gutxienez jarritako erdia jan)** beharko dituzte (1.platera, 2.platera eta postrea).
 2. Bazkaltzerakoan eserita egon beharko gara, jarrera egokia izan dadin zainduz (bizkarra zuzen, ukondoak arinki gorputzari itsatsita, eta eskuak mahai gainean besteak beste) eta soilik beharrezkoa denean eta monitorearen baimenarekin jaiki ahal izango gara.
 3. Janaria ondo xehatuko dugu digestioa errazteko eta beti ahoa itxia daukagula. Jaterakoan eta edaterakoan zaratarik egin gabe.
 4. Mahai-tresnak era egokian erabili (ez jolas egiteko), ez hartu inoiz janaria eskuekin.
 5. Aho-zapia era egokian erabili, jan eta edan aurretik eta ondoren garbitzeko.
 6. Janaria eskuekin ez ukitu. Elikagaiak bultzatzeko ogi zati bat erabili.
 7. Mahaian zikinkeriarik ez egin janari edo edariarekin. Mahaiko tresnekin ez jolastu. Zikintzen duguna garbitu egingo dugu.
 8. Oihurik ez egin, lagun eta monitoreengana tonu egokian zuzendu (monitorearen arreta eskatzeko eskua altxatu). Gugana hurbiltzeko denbora asko behar izaten badu, gogoratu ez gaudela bakarrik eta hezitzaileak beste kideei ere lagundu behar diela.
 9. Beste espresio batzuen artean "hau" nazka" "puagg" bezalako hitzak saihestu behar dira. Eta "ez zait gustatzen" "ez dakit zer den" "ez dut inoiz dastatu" bezalakoengatik ordezkatu.
 10. Jankide guztiek bazkaltzen amaitu, mahaia eta inguruak garbi izan eta monitoreak jangelatik atera gaitzkeela esan arte, lasai itxaron egingo dugu, mahaitik altxatu gabe.
 11. Guztion artean elkarbizitza atsegina eta errespetuz betea lortzeko ahaleginak egingo ditugu, bai lagunaren artean, eta baita monitore eta jankideen artean ere.
 12. Jangelako materiala guztiona dela eta guztion artean zaindu behar dugula azpimarratuko da bereziki.
 13. Bazkal orduan mugikorrik ezingo da erabili eta itzalduta mantendu beharko dira.
 14. Jankideak ez ohiko portaera duenean, errespetu eza monitoreengan, jokaera desegokia bere lagunekin eta abar, lehenik eta behin berarekin hitz egingo da jarrera hori zuzendu dezan. Berdin jarraituz gero, **gurasoei idatziz jakinaraziko zaie**, horretarako prestatutako orria erabiliz.
- Kasu berezietan, hiru abisu eman direnean eta jarrerak berdin jarraitzen baldin badu, **jangelako batzordea** (Nahiako arduradunak, ikastolako arduraduna eta guraso ordezkariak osatutakoa) informatuko da, eta honek jankidearen gurasoekin zer egin erabakiko du.



bazkal ondorengo garaia

1. Jangela-zerbitzuan, ikasleak ezin izango dira inolaz ere ikastetxetik irten, gurasoek baimena idatziz edo pertsonalki eskatu ezik.
2. Zaintza dute ikasleek begiralearekin jolas tokira edo liburutegira joango dira.
3. Eguraldi txarra denean, jantokian geratuko dira ikasleak: mahai jokoetan, marrazkiak egiten etab.
4. Komonera joan behar badute begiraleei baimena eskatu behar diete.
5. Paperontziak, erabiltzeko daude eta horrela jolastokia garbiagoa eta jolasteko atseginagoa izatea lortuko dugu.
6. Berdeguneak, zuhaitzak,... gozatzeko dira, horregatik ingurunean beti errespetuz jokatu dugu.
7. Guztion artean elkartasuna eta errespetuz jokatzeko ahaleginak egingo ditugu, borrokak, irainak eta eztabaidak saihestuz. Arazorik gertatuz gero, beti irtenbidea bilatu lasaitasunez hitz eginez, eta bestela monitorearengana jo.
8. Ikasgelara itzultzean, lasai sartuko gara gure lasaitasun garaiaz gozatu ondoren.



sukaldaria

1. Janaria prestatzea.
2. Janaria behar bezala aurkeztea eta jantokira eramatea.
3. Sukaldea eta bertako tresnak garbitzea.
4. Jantokia garbitzea eta jantokiko instalazioak prest izatea.
5. Jantokiko funtzionamenduari eragiten dioten gorabeheren berri ematea ikastolako arduradunari.
6. Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio.





begiraleak




1. Jantokian ordena mantentzea.
2. Ikasleen ardura eta zaintza, ikasleak jantokian daudenean, bai eta bazkal osteko atsedendietan daudenean ere.
3. Janaria mahaian ipintzea eta mahaitik jasotzea.
4. Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkien bestelako funtzioak ere.





+

jakintza
ikastola



jakintzaikastola



+

jakintzaikastola

Altamira auzoa Z/G

Tel. 943160540 – Faxe 943160790

Ikastola@Jakintza.net - WWW. Jakintza.net

ORDIZIA